


TRAZABILITATEA ERAUZTE

ARRANTZAREN SEKTOREAN



Arrantza-produktuen ekoizpen-kateko etapa guztietan **trazabilitate-sistemak** abiarazteak handitu egiten du horien **Elikagaien Segurtasuna**, eta, aldi berean, bermatu egiten du harrapatze guztien jarraipen zorrotza eta **ur-baliabideen** **ustiapen iraunkorra** gauzatuko dela.

Trazabilitatea da **Elikagaien Segurtasunaren** Arloko oinarritzko printzipioetako bat, eta ezinbestekoa da, elikagai-alerta baten aurrean, produktu baten historiala ezagutu eta kontsumitzaileen osasunaren babesa bermatzeko.

Hori dela eta, Europako legeriak ezartzen du trazabilitate-sistemak derrigor ezarri behar direla, bermatzeko elikagai bat identifikatu eta horren jarraipena egin ahal izango dela ekoizpen-, eraldatze- eta banantze-etapa guztietan, kontsumitu bitartean ([178/2002 Araudia](#)).




Arrantza-sektorean trazabilitatea Elikagaien Segurtasunarekin ez ezik, arrantza-baliabideen kontrolarekin eta iraunkortasunarekin ere lotzen da, eta ezinbesteko lanabesa da Arrantza Politika Erkideko arauak betetzeko ([1224/2009 Araudia](#)).

Kontzeptu horrek berarekin dakar **arrantza-produktu guztiak identifikatzeko beharra, ekoizpen eta merkaturatze-kateko fase guztietan** horien jarraipena egiteko aukera egon dadin (harrapatzetik txikizkako salmentara bitartean), edozein unetan osatu ahal izateko produktuaren historiala.

Horri dagokionez, behar-beharrezkoa da informazioa trukatzeko elikakateko kate guztien artean.

Informazio-trukea ahalbidetzeko, badira arrantzaren ekoizpen-kate osoan (harrapatzetik txikizkako salmentara bitartean) bete beharreko agiri batzuk.



1.- Arrantzontzian

10 metroko edo gehiagoko eslora duten arrantzontziek **Arratzaren Eguneroko Koaderno**a eraman behar dute, eta bertan apuntatuko dituzte eragiketa guztiak, arrantzatutako eta itsasontzira eramandako espezie bakoitzeko kopuruak, baldin eta 50 kilo baino gehiago badira.

⇒ 12 metrorik gorako eslora duten ontziek modu elektronikoan (DEA) erregistratu behar dute informazio hori.

⇒ 10 metrotik beherako eslora duten ontzientzat, berriz, agintari eskudunek laginketa-planak ezartzen dituzte, harrapaketen eta lehorreratzeen erregistroa egokia dela kontrolatzeko.

Arratzaren eguneroko koadernoan apuntatutako zenbatespen guztietan baimentzen den tolerantzia-aldea % 10ekoa da espezie guztientzat.

Halaber, ezinbestekoa da arrantzontzi guztiak (bai eta arrantza-aparailu eta tresna guztiak ere) markatuta eta identifikatuta egotea, Europako araudiari jarraikiz.

2.- Lehorreratzean

Lehorreratzean, itsasontziko kapitainak **Lehorreratze-adierazpena** bete beharko du, eta bertan zehaztuko ditu berariaz eta zehatz-mehatz lehorreratu diren espezie guztien kopuruak.

3.- Jomugako lehenengo establezimendua

Arrantza-produktuak komertzializatu edo erregistratu egin behar dira aldez aurretik enkante-zentro batean edo erosleen edo ekoizleen erakunde erregistratuetan.

Lehenengo salmenta baino lehen, beranduenez, arrantza-produktu guztiei **Lotea** identifikatzeko zenbakia jarri behar zaie. Lehenengo salmentaren ostean, arrantza-produktuen loteak taldekatu edo bereizi egin ahal dira, baldin eta harrapatze-fasera bitarteko jatorria identifikatu ahal bada.

Lotetzat honako hau ulertzen da: *"espezie jakin bateko arrantza-produktu kopuru jakin bat, aurkezpen bera bada eta geografia eremu berekoa eta arrantzontzi edo arrantzontzi-multzo berekoa bada"*.

ARRANTZAREN EGUNEROKO KOADERNOA – Gutxieneko informazioa

- Kanpoko identifikazio-zenbakia eta arrantzontziaren izena
- Harrapatze-data
- Portutik atera eta bertaratzeko data (itsasaldiaren iraupena)
- Lanabes-mota, mailaren zuloa eta lanabesaren dimentsioa
- Espeziea (FAOren 3-alfa kodea) eta harrapaketen geografia-eremua
- Espezie bakoitzaren zenbatetsitako kopurua (pisu biziaren kg) eta ale-kopurua (bidezkoa bada)
- Arrantza-bazterkinak, baldin eta 50 kg-tik gorakoa bada edozein espeziatarako
- Arrantza-eragiketen kopurua

LEHORRERATZE ADIERAZPENA – Gutxieneko informazioa

- Kanpoko identifikazio-zenbakia eta arrantzontziaren izena
- Espeziea (FAOren 3-alfa kodea) eta harrapaketen geografia-eremua
- Espezie bakoitzaren kopurua (produktu pisuaren kg), aurkezpen-motaren arabera xehakatur, eta ale-kopurua (bidezkoa bada)
- Lehorreratzeko portua

Ordenamendu-eremu bereko baina arrantzontzi ezberdineko harrapatzeak, espezieko 30 kilotik beherakoak, **lote** jarrai ahal izango ditu arrantzontziaren operatzailea kide den ekoizle-elkarteak edo baimendutako erosle batek, lehenengo salmenta egin aurretik.

Arrantza-produktuak lehorreratu eta lehenengo salmentarako beste leku batera (adibidez beste portu batera edo 20 kilometrotik gora) garraiatu behar badira, **Garraio-agiria** bete behar da.

Lehenengo salmenta egin aurretik arrantza-produktuak biltegitatu egiten badira, **Jasotze-adierazpena** bete behar da.

Lehenengo salmenta, oro har, lonjetan edo establezimendu baimenduetan egiten da, eta salmenta justifikatu egin behar da **Lehenengo salmentaren ohar**ren bidez. Ohar horrek ziurtatu egiten du salmentaren kudeaketa guztia eta arrain-partida guztiak pisatzea.

4.- Elikagai industria

Arrantza-produktuen trazabilitatea ekoizpenaren, eraldaketaren eta banaketaren fase guztietan ere bermatu behar da; beraz, elikagai-enpresen ustiatzaileek ziurtatu egin behar dute elikagaien sortei buruzko informazioa produktuak hornitzen dituzten elikagai-enpresako operatzailearen esku jartzen dela.

SORTA BAKOITZEKO GUTXIENKO INFORMAZIOA

- Sortaren identifikazio-zenbakia.
- Kanpoko identifikazio-zenbakia eta arrantza-ontziaren izena.
- FAOaren 3-alfa kodea, espezieari dagokiona.
- Harrapatze- edo ekoizte-data.
- Espezie bakoitzeko kopurua (kg) eta ale kopurua (bidezkoa bada).
- Hornitzailearen izena eta helbidea.

GARRAIO AGIRIA – Gutxieneko informazioa

- Garraiorako ibilgailuaren identifikazioa
- Jomugako lekua
- Kanpoko identifikazio-zenbakia eta arrantzontziaren izena
- Garraiatutako espezie bakoitzaren kopurua (produktu pisuaren kg), aurkezpen-motaren arabera xehakaturik, eta ale-kopurua
- Jasotzailearen izena eta helbidea
- Zamaketaren lekua eta data

JASOTZE AGIRIA – Gutxieneko informazioa

- Kanpoko identifikazio-zenbakia eta arrantzontziaren izena
- Lehorreratzeko portua eta eguna
- Arrantzontziaren operatzailearen edo kapitainaren izena
- Harrapaketaren espeziea eta geografia-eremua
- Biltegitratutako espezie bakoitzaren kopurua (produktu pisuaren kg), aurkezpen-motaren arabera xehakaturik, eta ale-kopurua
- Biltegitratzen den instalazioaren izena eta helbidea
- Garraio-agiriaren erreferentzia (bidezkoa bada)

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA

Trazabilitatea

arrantza sektorean



LEHENENGO SALMENTAREN OHARRA – Gutxieneko informazioa

- Kanpoko identifikazio-zenbakia eta arrantzontziaren izena
- Lehorreratzeko portua eta eguna
- Operatzaileen izena eta identifikazio fiskalerako zenbakia
- Espezie bakoitzaren kopurua eta harrapaketa-geografia-eremua
- Tamaina edo pisua, mota, aurkezpena eta freskotasun-maila
- Salmentaren lekua eta eguna
- Prezioa

ELIKAGAI INDUSTRIA – Eman beharreko gutxieneko informazioa

- Elikagaien deskripzio zehatza
- Elikagaien bolumena edo kopurua
- Elikagaiak bidali dituen enpresako ustiatzailearen izena eta helbidea (igorlea) eta elikagaiak jasotzen dituenaren izena eta helbidea (hartzailea)
- Lotea identifikatzen duen erreferentzia (bidezkoa bada)
- Espedizio-data

Elikagai-industrian honako hiru maila hauetan mantendu behar da trazabilitatea:

- ⇒ **Atzeranzko trazabilitatea:** Horren bidez jakin ahal da zein produktu sartzen diren enpresan eta zein diren produktu horien hornitzaileak.
- ⇒ **Barneko trazabilitatea:** Lotura izan behar du produktuei enpresa barruan egiten zaien jarraipenarekin.
- ⇒ **Aurreranzko trazabilitatea:** Horren bidez erregistratu egingo ditugu, alde batetik, bidaltzeko prest ditugun produktuen datuak; bestalde, produktu horiek jasoko dituzten bezeroen datuak.

5.- Txikizkako salmenta

Salgai jartzen diren arrantza-produktuak behar bezala etiketatuta egongo dira, eta etiketatuko informazioaren fidagarritasuna elikagaiaren ekoizpen-kate osoan eman den informazioaren arabera izango da.

ETIKETA – Kontsumitzailearentzako gutxieneko informazioa

- Izen komertziala eta izen zientifikoa
- Arrantzaren geografia-eremua eta ekoizpen-metodoa
- Produktua izoztu den ala ez adieraztea

Etiketak bermatu egin behar du lote bakoitzaren trazabilitatea, eta, horrez gain, "desizoztua" hitza eraman beharko du produktua aurretik izoztu egin badute.

IKUSKAPENAK ETA KONTROLAK

Kontsumitzaileek osasuna babesteko eta arrantza iraunkorra bermatzeko, Europako legeriak behartu egiten ditu **operatzaileak trazabilitate-sistemak ezartzera** arrantza-produktuen ekoizpen-kateko etapa guztietan. Halaber, **administrazioa** behartu egiten du, **operatzaileek eginkizun hori betetzen dutela zaintzera**.

Beraz, beharrezkoa da kontrol integrala ezartzea, trazabilitatea bermatzeko arrainaren ekoizpen- eta komertzializazio-kate osoan (itsasoan zein portuetan), garraioan, eraldaketa instalazioetan eta arrantza-produktuak merkaturatzeko fasean. Kontrol horien oinarria arriskuen kudeaketa izango da.

Halaber, arau-hausteren bat eginez gero, araudiak exijitu egiten du estatu kideek ziurtatzea neurri-zuzentzaile egokiak hartzen direla eta arau-hauste horien jarraipena egin ahal dela.

ONDORIOAK

Elikagaien Segurtasunaren arloko arauak eta Arrantza Politika Erkidea betetzeak bermatu egiten du harrapatze guztien jarraipen zorrotza eta ur-baliabideen ustiapen iraunkorra gauzatuko dela. Aldi berean, ziurtatu egiten du, alerta baten aurrean, produktu baten jarraipena egin eta historiala ezagutu ahalko dela. Horrek guztiak areagotu egiten du Elikagaien Segurtasuna eta kontsumitzaileen osasunaren babesa.

Trazabilitatea da araudi hori betetzeko oinarritzko lanabesa, eta beharrezkoa da erregistro batzuk izatea elikagaien ekoizpen-kate osoan. Erregistro horiek partekatu egin behar dira elikakateko kate guztietan parte hartzen duten operatzaileen artean.

ERREFERENTZIAK

[AESAN](#) Gidaliburua: trazabilitate-sistema ezartzea elikagaien enpresan. AESAN

[ELIKA](#). Trazabilitatea.

[MAGRAMA](#). Gidaliburua. Trazabilitateari buruzko legeria ezartzea arrantza- eta akuikultura-sektorean.


[MERCASA](#) Gidaliburua: Trazabilitatea Mercas Sarean

[178/2002 \(EE\) Araudia](#), Europako Parlamentuarena eta Batzordearen, elikagaien arloko printzipio eta betekizun orokorrak ezartzen dituen, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentzia sortzen dituen eta Elikagaien Segurtasunari buruzko prozedurak zehazten dituen.

[1224/2009 \(EE\) Araudia](#), Kontseiluarena, Arrantza Politika Erkideko arauak betetzen direla ziurtatzeko kontrolaren araubide erkidea ezartzen duena.

[931/2011 \(EB\) Egikaritze Araudia](#), Batzordearena, 178/2002 Araudiak trazabilitate-arloan ezarritako betekizunei buruzkoa.

[404/2011 \(EB\) Egikaritze Araudia](#), Batzordearena, 1224/2009 Araudia garatzeko arauak ezartzen dituen.



Arrantza sektorean
Elikagaien Segurtasunari
buruzko informazio
gehiago kontsultatu nahi
duzu?

http://www.elika.net/eu/pesca_home.asp